

LAU URTERIK BEHINGO BERTSO-GAILURRA

Bertsolaritza hitzaren plazan arte eta jolas gisa agertzen zaigu gehienetan. Noizbehinka, hala ere, arte eta jolas izateari utzi gabe, lehiaren erdian proba, norgehiagoka, txapelketa bihurturik izan ohi dugu. Euskaldunok, dirudienez, gogoko dugu lehia. Baserri eta itsasoko lanak kirol bihurtu ditugunez, hitzaren bertsozko arte hau ere proba, lehiaketa bihurtzen dakigu.

Lau urterik behin Anoetako gailurrerako bidaiari ekiten dio bertsolaritzak. Hainbat sentimenduren sorleku den bertso-gailurra. Poza, ametsa, urduritasuna, beldurra, ausardia... nahasian datozkio bertsolariari bihotzetik gora.

Entzuleak ere nolabait bertsoaren lilura-harrietan korapilatze-ko ahalmena izan ohi du bertsolaritzak, batez ere lehiaren edo txapelketaren beroak jotzen duenean. Entzuleak egon-egonean ez direla egoten esan nahi nuen, bertsolariak zer esango, haren hitzetik zintzilik eta bere baitan bertsogintzan baizik. Bertsozaleak iraganeko eta aurreko txapelketa batzuetako une distiratsuak, zirrara berezia egin dioten uneak izaten ditu gogoan. Gaur egunean horrelako ale ederrak osorik ez ditu gogoan izango, agian, magnetofono, bideo, liburu eta gainerako baliabideen pentzudan uzten duelako bere burua, baina puska batzuk, puntu batzuk-edo han daude bertsozalearen oroimenean ongi gorderik. Txapelketa bat hasten den guztian halako une

gogoangarriak berriz izateko irrikaz egongo da, itxaropen hori sekula galdu gabe. Hau da, entzulea, eskuarki, jarrera onean doa txapelketara, bertsoaz gozatzera, bertsoaren zurrumbiloan sartzera, al bait ongien festan esku hartzera...

Ahozko jardun berezi honek doinu, arrazoi, ziri, umore eta sentimendutan utzi zizkigun oihartzun artean etorri zitzaizkigun Gabonak eta urtearen amaiera. Urte berria ere, eten handirik gabe, Anoetako gailurrean harturiko abiadaz ongi eta bizi hasi zaigu. San Anton eta San Sebastian jaiak, bertsolari-eguna, sagardo berria dastatzeko eguna... aitzakiatzat harturik, bertso-jaialdi ugari izan ohi da han eta hemen. Herri batzuetan, gainera, gutxi behar izaten da Anoetako Belodromoko guztiak edo onentxoena aurrez aurre berriro jartzeko... Txapelketa nagusiak markatzen du, bada, bertsolaritzari dagokionez, lau urterik behingo gertaera nagusia. Ondorengo hilabeteetan jalkitzen uzten zaio bihotz barnean isuri den bertso-zuku guztia-ri. Etorriko da galbaheketa egiteko garaia; bertsolaritzari pultsua hartzeko, haren osasuna aztertzeko garaia; etorriko da urteko batzar nagusia.

Dena dela, *Karmel* aldizkariak txapelketaz txapelketa gogoetaldi bat egin ohi du. Hala egin du orain arteko azken hiru txapelketetan eta hau izango dugu laugarrena. 1986koan "Bertsolari txapelketaren ondoko galbahaketa" jarri genion izenburua eta honela hasten genuen:

"Bertso-doinu ezberdinak, ametsetako zinta ero bat bailitzan, dantza nahasian ari dira oraindik nire oroimenean. Bertsolarien, batez ere finalekoen, itxura, aurpegikera eta beste nabardura asko hortxe datozkit, barruko pantaila batetan bezala, burutik baztertu ezineko eran; baina neu ere pozik, gogozko dudan zurrumbiloan murgildua baitut izpiritua. Egingo nuke ez naizela bakarra, ezta hurrik ere!". Lerro hauen goialdean Sebastian Lizaso ageri da txapel preziatuaz jantzirik, gazte eta dotore. Orrialde batzuk aurrerago, Andoni Egañaren argazkiak harritu nau. Burua ilez ongi jantzia, soilunerik bat ere ez; gaz-



te-gazte, ia mutiko... Orrialde bat edo aurrerago, Jon Sarasua. Hau bai mutikoa!

1989ko txapelduna Jon Lopategi izan genuen. "Txapelaren itzala" jarri genion izenburua eta honela ekin genion idazlariari:

"Txapel preziatu bakarrak piztu ohi duen irrikaren eraginpean bizi izango ziren zenbait bertsolari 1989.eko azken bi hilabeteetan. Txapelaren amets gaitz, gozo eta mina gau eta egun zirika, irrika; askoren nahiaren dina, baina zenbaitentzat esku-raezina. Dena dela bertsolari on guztiek, punta-puntakoei orpoz orpo zerraizkiela su eta gar aritu behar belodromoko hautatuen artean izateko.

Bertsoaren lilurak eta txapelketaren lehiak gori-gori eta hor-
bor jarri zuten giroa. Gure kulturaren herri-adierazpenik gore-
nak erakarririk, bertsolarien inguru-minguru bildu izan da
euskaldungoaren zati handi bat eta txapelketaren azkenaldian
bereziki, bertsoaren doinuzko isuri gozoak ase du haietariko
bakoitzaren izpiritua”.

1993an, txapeldungaitzat jende askok aspaldidanik begiz jo-
ta zuen Andoni Egafiak jantziko zuen txapela. Aurreko txapel-
ketan ere gauza polit-politak erakutsi zituen eta urduritasunak
eragindako zalantza eta estroprezu txiki batzuek eragotziko
zioten, beharbada, txapela eskuratzea. Urte horretan “Txapel-
keta Nagusiaren ondoko gogoetak” izenburua jartzen nion
Karmel aldizkariko neure idazlanari. Hona sarrerako lerroak:

“Ohartu orduko denborak irentsi du geure-geurea genuen
puskatxo bat. 1994an itzartu gara. Iazko urteak kontu ugari
esan digu. Belarri ertzero eta bihotz-muinera. Nik barneko li-
buruan idatzirik ditut batzuk. Hortik, irakurle, poliki-poliki gor-
de berria nuen kultur ekintza xume bat atera dut zuretzat:
Bertsolari Txapelketa Nagusia. Izan ere, 1993ko urtea txapel-
keta nagusiaz markaturik zetorkigun, eta halaxe joan zaigu,
doinuz jantzen den bat-bateko hitzaren jolasean agur esanez.


Lau urterik behin txapel preziatua nork jantziko elkarren
lehian aritzen dira bertsolariak. Geroago eta ederrago berritzen
den artearen erakusketa goi-mailakoa dastatu ahal izan dugu
oraingoan ere”.

Urriaren 11tik abenduaren 14ra, Tolosatik Donostiara

Txapelketa udazkenean nahiko goiz jaikita, nagiak atera on-
doren, abiada bizian hasi zen, larunbat gau eta igande arratsal-
derik gehienak hartarako hartuz. Bertsozalerik leialenak edo-
norako prest zeuden eta, kilometroei nahiz eguraldi txarrei au-
rre eginik, txapelketaren jokalekuetatik bertatik haren lekuko
zuzen-zuzenak izan dira. Beste batzuk, ordea, txapelketa gu-
nerik beroenetara iritsi arte ez dira euren etxeetatik irten. Izan

ere, iritzi batera, inork ez du uste izaten aurreko neurketa horietan ezer handirik gertatuko denik. Lehen mailakoek erraz gaindituko dituztela proba horiek uste izaten da eta finalaurrekoetan hasiko dela handien arteko benetakoa lehia... Dena dela, bidea egin egin behar izaten da eta lehenengo hotsen, ia eztarria berotu orduko, handietariko bat erortzea ez da beraientzat gozoa izango... Tolosako Leidor antzokian eman zitzaion hasiera. Hainbat bertsolari gazte. Izen batzuk gutxi entzunak eta, agian, gutxi ibiliak ere bai Euskal Herriko plazetan zehar, baina lehen ariketan batez ere, zortziko handian, taxu ona agertu zutenak. Saioa, oro har, on samarra eta entzuleen gogokoa gertatu zen. Sebastian Lizaso eta Igor Elorza zeuden guztien gogotan. Azpeitiarra, ohi bezala, etorri oneko agertu zen eta erraz nagusitu zen. Igorrek, ordea, uste baino beheraxeago jardun zuela esango nuke, baina bigarren eta puntu kopuru onarekin, finalaurrekoetarako ate-zirikitua behintzat irekirik zuen, ondorengo saioetako bertsolariek zer egingo zain... Hirugarren Unai Agirre; hau ere puntu kopuru politarekin.

Hurrengo saioa astebete barru, Aramaioko kiroldegian. Urriaren 18a, larunbat gaua zen. Jende gutxi, eguraldi hotza



eta bertso-saioa ere halakoxea. Ez ona, behintzat; akats gehiegitxo... Maialen Lujanbiok lortu zituen punturik gehien eta honen ondoren bigarren Iñaki Zelaia sailkatu zen. Ondoren zetozenen zurrumbiloak irentsi eta saio hau laster ahaztuko zelakoan nengoen.

Urriaren 19an Hendaiako Beltzenia pilotalekuan zen saioa. Txapelduna, Andoni Egaña, agertzen zen hemen. Horregatik edo, aurreko saioetan ikusi gabeko hainbat bertsozale ikusi genituen; Iparraldekoek, jakina, ezin huts egin. Andoni Egañak puntutan alde handia hartu zien gainerakoei, eta bertsotan ere hala izango zela uste dugu, txapeldunaren sonak epaile gurtioi aldi berean irrist eragitea zaila baita. Gero egunkarietan irakurri ahal izan genuenez, Andoni ez zen erraz eta gogotsu aritu. Ez zegoen bere lanarekin pozik... Bigarren Joan Joxe Eizmendi "Loidisaletxe". Honen bertsogintza jende askoren gogoko da. Izan ere, guztiz klasikoa da. Etorri ona du eta bertsolari zaharrek izan ohi zuten sagardoaren garraztasuntxo atsegina du kantaeran.


Urriaren 25ean, larunbat gauez, Ondarroako kiroldegian zen saioa. Lea-Artibaiko hiru zeuden seikotean Gregorio Larrañaga "Mañukorta" buru zela. Saioa, oro har, ez zen on-ona izan, baina hain txarra ere ez. Aramaiokoa baino hobea... Lea-Artibaikoek jende ugari zuten gogo-altxagarri, batez ere Mañukortak. Ez zuen Bizkaiko txapelketarik gehienetan erakutsi izan duen maila onik erakutsi eta akats batzuk tarteko, ezin aurrera egin. Donostiako belodromoan Mañukorta ikustea ederra litzateke, bada...! Aitor Mendiluze gailendu zen eta nahiko hurbiletik, bigarren, Jesus Mari Arzallus.

Biharamunean Nafarroarantz abiatu ziren bertsozaleak. Urriaren 26an Iruñeko Gaiarre antzokian zen saioa. Iñaki Muruak lortu zituen punturik gehien, Aritz Lopategi hurbil-hurbil zuela. Biak ere, goi-goirik lortu gabe, baina ederki aritu ziren, akatsik gabe eta noizean behin bertso onak, gurpil onekoak eginez. Beñat Gaztelurrutiak ez zuen egun ona izan hasierako bertsoetan izan ezik. Estitxu Arozenak ere oraingoan ez zion

beste batzuetako mailari eutsi. Estitxu Fernandez eta Andoni Larrañagak gauza politak erakutsi zituzten akats batzuekin nahaste. Estitxuk, batez ere, ideia politak eta nahiko originalak. Andoniren kantaera ere bizi-bizia eta atsegina da.

Domusantu arratsaldean Getxon zen bertso-saioa. Ez zen entzuleen gogoko izan. Mikel Mendizabal txukun eta akatsik gabe arratsalde osoan. Berak lortu zituen punturik gehien. Oihane Enbeita bigarren sailkatu zen, kanporaketa honetako ezusteko pozgarrienetarikoa bat izanez. Unai Iturriaga, ordea, alderantziz izan da. Bertso on batzuekin pixka bat konpondu ez balu, ia amildegian behera erortzeko eran. Hala ere hirugarren sailkatu zen. Azken kanporaketa-saioan besteek zer egingo zain egon behar. Jose Munduate zen hurrengoa...

Azaroaren 2an Zarauzko kiroldegian izango zen saioak erakarri zuen arreta. Azken aukera zen finalaurrekoetan sartzeko. Bost gipuzkoar eta nafar bat ziren; nafarra Bittor Elizagoien. Kiroldegia gainezka eta giroa bero-bero. Alde horretatik bertso-saioa baino gehiago ia kirol txapelketa bat zirudien. Jendearen ezpainetan puruak ketan eta bihotzak garretan. Saio ona gertatu zen. Futbol-zelaietan, ikusleen oihu artean etxeko taldea piztu eta jo eta su au-



rrera egiten duenez, halaxe hemen ere. Bertsolariak, gazteak batez ere, bizi-bizi ari ziren. Jokin Sorozabalek hartu zien gainerakoei aurrea, baina puntu askorekin ondoren zetozkion Jon Maia, Jesus Mari Irazu eta Aitor Sarriegi. Lau hauek sailkatu ziren aurrerako. Ni neu Aitor Sarriegik harritu ninduen. Bertso-tan etorri onez eta bizi-bizi egiteko gai dela erakutsi zuen. Bertso-paperetatik ezagutzen nuen, baina bat-batean ere badiuela txispa erakutsi zuen. Txalo-zaparrada artean iragarri ziren puntuak eta honenbestez finalaurrekoetarako 18en izenak eman ziren. Unai Iturriaga barruko zen, larri-larri...

Beran, Igorren eta Beasainen jokatu ziren finalaurrekoak. Berako saioa izan zen onena alde handiz. Txapelketa osoko bertso-rik bikainenak hemen entzun ziren. Une honetan, bat-batean gogora datozkidanak Unai Iturriagak bi ariketatan botatakoak: aitonari ipuinak kontatzeko eskatzen zion haurra zen batean, eta oin gezurrezkoa bestean. Azken honek, entzunez batera, gai oso zaila zirudien, baina ederki menderatu zuen, jenio bati soilik bururatzen zaion "orainelaren" aipamen xelebren harekin. Beste ariketa eder bat Andoni Egañak Jon Maiari erantzunez egindakoa izan zen; telebistako aginte-tresna gorde zuen amonarena egitean botatako ale ederrak, ironiaz eta umorez beteak. Hasieran Iñaki Zelaia ere ongi aritu zen, baina saioaren erdiaz gero akatsak izan zituen eta pixka bat behera etorri zen. Jon Maiaren kartzelakoak ere oso txalotuak izan ziren.


Igorreko saioa, Berakoaren ondoan, egunetik gauera bezala aldatu zen. Behin maila honetaraz gero, onenean ere, erdipurdikoa izan zela esan dezakegu. Bertsolariak oso urduri ikusi genituen eta ia ezinean. Punturik gehien lortu zituena S. Lizaso izan zen, baina hau ere hotz ikusi genuen eta, bertsolari honengan harritzekoa dena, etorri handirik gabe. Alerik onenak, agian, Aitor Mendiluzek botako zituen eta Igor Elortzak ere bai kartzelako gaian. Dena dela, hark bi poto egin zituen eta honek bat; horrela, biek ere ez zuten aurrera egiterik izan epaile-en iritziz. Iñaki Muruagandik ere jendeak gehiago uste zuen,

baina urduritasunak edo ez zion utzi bere onena ematen. Aho-tsak ere dardar egiten ziola, triste iruditu zitzaigun epaileoi.

Beasainen zen azken aukera Donostiako finalerako txartela lortzeko. Horregatik, aurreko fasean Zarautzen bezala, hemen ere giro bero-beroa zen. Puruak ketan eta gogoak garretan...

Bertso onak izan ziren, baina kasurik gehienetan, ez saio osoan zehar. Jokin Sorozabal hautatuen artean izango zela uste genuen. Hala zirudien hasieran. Puntuak erraz pilatuz zihoan, bertso onak kantatuz. Baina saioa aurrera joan ahala, bi potto tarteko, behera etorri zen, edota epaileoi behintzat hala iruditu zitzaigun... Txistu-

hotsean eta oihu itsusien artean irten behar izan genuen kiroldegitik. Baina horiek bertsogintzaren artea eta kirola nahasten dituztenak dira. Apustulari buruberoen jarrera ikusi nuen txistu-jotze eta oihu haietan. Bestetan bezala, ale gogoangarririk bota gabe baina saio osoan zehar txukun eta bertso onak kantatu zituztenak izan ziren aurrerako: Mikel Mendizabal eta Aritz Lopategi zeuden hauen artean. Bigarren, berriz, Jesus Ma-



ri Irazu izan zen. Honek kartzelako gaian bi bertso bikain bota zituen, hirugarrenaren amaieran gramatikako akats larria egin bazuen ere. Finalerako zortzikotea iragarri zen: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Jon Maia, Sebastian Lizaso, Mikel Mendizabal, Jesus Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Aritz Lopategi. Eta txapelketa finaleko egun handiaren zain gelditu zen. Bitartean eroriak eta ustekabeen aurrera irtenak zeuden. Erorien artean Iñaki Murua, Jokin Sorozabal eta Aitor Mendiluze aipatu beharko. Ustekabeko onak, berriz, nire iritziz Jon Maia, Jesus Mari Irazu, Maialen Lujanbio eta baita Oihane Enbeita eta Aitor Sarriegi ere.

Donostiako belodromoa, hautatuen plaza nagusia

Abenduaren 14a ahozko arte hau maite dugunontzat, eta bide batez euskal kultura herritarrarentzat, egun handia izango zelakoan abiatu ginen Donostiarantz. Begira nola prestatu izango zen giroa: igande goizean, Berriatutik Ondarroara bitartean alkohol-graduak neurtzeko ertzainen kontrola zegoen jarrita. Ertzainetarikoa batek ezagutzen ninduen, kontzitu, eta ea meza ematera nindoan galdetu zidan. Ezetz nik, Donostiako belodromora nindoala epaile egitera; eta hark: aurten nork jantziko du txapela? Nik sorbaldak jasota, ez nekiela...! Irribarre eginda, aurrera joaten utzi zidan...

Donostiako Anoeta inguruan jendea uholdeka zebilen. Goiztiarrenek itxaron beharra izan zuten, segurtasun neurriengatik pixka batean barrura sartzerik ez zutelako. Zer sentimendu ote zerabilten barnean? Zer ote zerabilten bertsolariak eurek? Ongi gorderik zen haien sentipenen liburua. Xabier Euzkitzek, hala ere, bere sentipen ezkutuen liburutik orrialdetxo bat edo erakutsi digu: "Sentipenak" izenburuz dakar *Euskaldunon Egunkariako* abenduaren 14ko idazlan interesgarria. Honela hasten du: "Galduko al duzu!". Peñak eta biek pilota-desafio bat zuten Eratsunen herriko bikote baten aurka. Partida hasi aurretik elkarri bos-tekoa ematerakoan egotzi omen zion nafar aurrelariak eztenkada

hori: "Galduko al duzu!". Horretaz hona zer dion bertsolari eta kazetari honek:

"Txapelketa nagusian parte hartzen ari diren bertsolariei begira nagoelarik, huraxe etortzen zait maiz burura. Izan ere, neuk ere sentitu izan dut oholtza gainean, aitortzeak erreparo pixka bat emanagatik. Badakit, gainera, ez dela neure kontua bakarrik. Finalean sartzarekin helburu guztiak beteta dituen bertsolariak ez du lana itxuroso egitea beste kezkarik. 89.ean zakurra baino lasaiago egon nintzen tabladuan, baina geroztikakoetan Lizasok edo Egañak noiz huts egingo zain egon nintzela ezin dut ahantzi. Triste da plazarik plaza etengabe zurekin dabilzane *mututuko al baiz* esanez haien akatsen esperoan egon beharra. Triste, baina egia".

Barruan ginen. Hamar minutu geroago hasiko zen, lehenxeago aipaturiko arrazoiengatik. Guztia prest-prest, bertso-jai nagusia hastera zihoran, Lazaro Azkune gai-jartzaile eta aurkezlearen esanera. Anoeta hautatuen plaza nagusia zela gauza nabaria zen. Hango jendetzak, hango komunikabideak, epaileak, interpretariak, hango ohikune edo errituak horren adierazle garbi ziren.



Benetan lan gaitza zuten bertsolariek. Egun osoko lana. Luzea bezain zaila. Goizean hasterakoan bat-batean gainera zertorkien zama begiratuz gero, beldurtzekoa! Oso urrun ikusiko zen amaiera, eta iraupenaren kezka. Egun osoan zehar trenpu onean eta burua argi dela iraungo ote den zalantza. Aita Martin Uriarte karmeldar sermolari eta euskal idazleak esan ohi zuena etortzen zait noizbehinka gogora. Sermoiak ongi egin ahal izateko honelako baldintzak behar zirela zioen hark: "bularra sendo, samea garbi eta buruan zer esan ugari". Bertsolariek ere Anoetako plaza nagusi honetan beharko dute hortik pixka bat haino gehiago... Antzinako bertsolarien gorabeherak irakurriz, haien sagardotegietako desafio luzeen berri izatean, maiz pentsatu izan dut neure baitan, halako bertso-guduetan bertsolari ona izatea ez zela aski, osasuna eta gorputzez ere sasoi ona beharko zela ezberrik gabe. Gauak ordu asko eman da gero, bietarik bat leher eginda erretirutzen zenean bukatzen baitziren. Gainera, eskuarki, ez ziren askoren arteko norgehiagokak, buruz buruzkoak baizik. Anoetako belodromokoak buruz buruzkoak ez dira, baina iraupen luzeokoak bai. Leher egin artekoak direla esango nuke, espiritua egun osoan erne eta argi izatea ez baita batere erraza...

Bertsoen zurrunbiloan sarturik eta epaile-lana ongi betetzearen ardurak oso-osoa harturik, orduak igarri gabe itzuri zitzaizkigun. Goizekoa amaitu zen eta bazkal ondoren arratsaldean beste hainbestekoa gelditzen zen. Bazkal orduan askok askatu nahi zutela zirudien. Goizeko saioan entzundakoaz hitz egin, iritziak adierazi, aldameneko edo aurrekoenak entzun. Epaileok tentuz aritu behar komeni ez denik ez esateko... Egia esan, horrelakoetan gogoan izaten dena ere ez da gauza handirik izaten, hain xeheki jokatzen da epaimahaian! Puntuaz puntu, esaldiz esaldiz eta bertsoz bertso jardun ohi dugu epaitzerakoan. Ikuspegi zabala, urrunagotik begira ari denarena falta izaten zaigu. Gainera, gure oharrak zenbaki bihurturik idazkariaren eskuetara pasatzen dira berehala eta saio osoaren berririk ez dugu izaten. Gutxiago oraindik azken batuketek zertara jotzen



duen... Horiek guk erabakitzen ditugu zazpion artean, baina papertxoak gure eskuetatik irten ahala, ez dugu gehiago haien berririk izaten. Beraz, ezustekoak ere izaten ditugu sailkapena entzuterakoan, nik aurre samarrean izan dudan bertsolaria besteek hainbat atzerago jarri dutenean edo alderantziz...

Geure lanean sarturik, goizean bezala, denborak ihes egin zuen. Ia ustekabean txapelketaren amaieran ginen. Txapeldu-naren izena bozgorailuetatik iragarri zenean, ez zen inor harritu. Andoni Egañak jantziko du bigarrenez segidan txapela. Txapelketaren atarian hura zegoen bertsozale guztien gogotan. Batzuek ziotenez, hasi aurretik txapela lehengo buruan ongi jarrita ikusteak kenduko zion, agian, interes pixka bat txapelketa honi... Bigarren S. Lizaso izan zen eta ondoren hurrenez hurren Unai Iturriaga, Jesus Mari Irazu, Mikel Mendizabal, Aritz Lopategi, Jon Maia eta Maialen Lujanbio. Hauen guztien ordena ez zegoen argi eta epaileen artean ere aldeak zeuden edo ez zetozen bat.

Zer gertatu zen, bada, Anoetako bertso-gailurrean? Jendez, antolakundez, komunikabideen hotsez, ametsez, itxaropenez bertso-gailurra izan behar zuena ez zela hain gailur izan... Bai, bertso ederrak entzun ziren, baina baita akatsak eta irristadak ere. Txapeldunak berak ere ez zuen goi-goian eta erraz ibiltzerik lortu. Gaiek ere zerikusi handia dute, jakina! Andoni edozein gai kaxkar gai on bihurtzen dakiena dela irakurtzen nion bertsoetaz maiz aritzen den kazetari bati. Oraingoan, ordea, gaiengatik eta nekeagatik, berak esango zuenez, ez da gogara ibili eta entzuleengan ere ez du ohi duen zirrarak sortu. *Euskaldunon Egunkaria*ko kazetariak elkarrizketaren harian honela galdetzen zion:

- Arazoa, beraz, bertsoa burutik ahora eramateko orduan zeneukan, kanpora ateratzerakoan.
- Hori da. Burura iristen ziren, beno, bakarkakoan hori ere ez, baina bestela bai. Hala ere, atzo ez nuen ondo kantatu. Ez nuen ondo komunikatu. Zergatik? Bada, ezin nuelako, nekatuta nengoelako.

Beste atal batean honela zioen:

"Orain lau urte baino aukera gutxiago izan dut nire abaniko ideologikoa erakusteko [...] Poesiarako joera gutxi zegoen nire gaietan, hala tokatu direlako, beste batzuk on askoak entzun ditut. Kontua da gaur neukan egunarekin on asko horiek tokatuta akaso irrist egingo nuela". Amurizak jarri zion txapela eta gogoeta polit hau adierazi du: "Hemeretzi urte nituela, bertso-larritza zerbait urrun bezala ikusten nuen, eta Amurizaren bertsoak entzun nituenean 1980ko txapelketan, erabaki nuen horrelako zerbait egin nahi nuela. Hainbat urteren buruan txapela berak jartzea zirrargarria izan da".

Sebastian Lizasori azken txapelketakoa gertatu zaio oraingoan ere. Goizeko bakarreko gaian akats larriak izan dituela. Bi poto zehazkiago esanda. Aurrekoan arratsaldean bere onenera etorri zen eta oraingoan ere ia onenera. Dena dela, goizean,

sukaldea zer den adieraztean bertso eder-ederra bota zuen. Lizaso, bestalde, ofiziotan-eta ongi ari denean, bertsolari distiratsua da, kantuan gehienei alde kentzen diena. Nire iritziz, hala ere, Aritz Lopategi eta Mikel Mendizabali zegozkien bigarren eta hirugarren postuak. Egun osoan eutsi zioten maila onari, akats larriak egin gabe. Mikelek, agian, arratsaldean erdialdetik aurrera pixka bat behera egin zuen. Unai Iturriagak Beran erakutsi zuen injeniorik ez zuen agertu finalean. Bere markako batzuk bai bota zituen; esaterako, basoaren definizioa eskatu ziotenean. Hitz horren bi adiera emanaz, ezusteko polita izan zen zerbeza edateko ere badela esanez bertsoari amaiera eman zionean. Beste ale polit batzuk ere izan zituen, gauza ez hain onekin nahaste, tartean zortziko txikian egindako poto bat, nik neure oharretan jaso bai, baina gero puntuak ematerakoan oharkabean zigortu ez nuena... Gainerako gazteen lanaren ezaugarriak Andoni Egañak berak azaltzen ditu *Euskaldunon Egunkarian* egin zioten elkarrizketan. Honela dio gazteen lanaz:

“Nik igandean bertsolari gazteak horrela ikusi nituen, momentu batean oso goian, eta gero poto inozo bat egiten zuten. Baina hori normala da, denok ibili gara noizbait horrela belodromoan. Gazteei ikusi nien beste gauza bat, ofiziotan baino hobeto bakarrekoan aritu zirela”.

Jesus Mari Irazuri dagokionez, bakarreko saioa goizean ez zuen batere ona egin. Arratsaldean bai, ordea, kartzelakoan eta zortziko txikian ere bera izan zen onenatarikoa, Aritz Lopategirekin batera. Jon Maiaren bertsogintza nahiko eztabaidatua izan da. Gorabehera handiak izan zituen. Bertso onak eta hutsegiteak. Iparragirreraren doinuan lehenengo bertsoan, adibidez. Goizean elkarrizketatik irten eta entzuleekin sartu zen lesbianen gaiari heltzerakoan. Alabaren maitasun-gutuna dela eta egin zituenak bertso eder eta zirraragarrien taxua zeukaten. Baina ia barru-hutsak ziren, amaiera indartsua eta esanguratsua zutenak. Epaileok ere, txalo-zaparrada artean une hartako be-

roan harrapatuak izan ginela aitortu behar, batzuk behintzat. Gero txalo-zaparrada gabe eta beroena kenduz, pixka bat biluzturik geratu ziren bertso horiek. Kantaeraren erritmoa ere, bere eten nabarmen eta guzti, desegokitzat jo zuten batzuek... Dena dela akatsak akats, bera eta beste gazteak izan dira bereziki txapelketa honi interesa eman diotenak.

Hautatuen plaza nagusian batzuk falta ote ziren zurrumurruak zabaldu ziren. Zurrumurruak baino gehiago ere bai... Beasaingo txistu eta oihuek hori adierazten zuten eta ondoren komunikabideren batean agertutako kritikek ere bai. Izenik ez zen aipatzen, baina Aritz Lopategik hartu zuen zortzigarren aulkia-eta... Dena dela Aritz lasai egon daiteke txapelketa honetan egindako lan ederragatik. Nire iritziz, zortzigarren aulkia baino goragokoa zegokion eta finalean seigarrena baino hainbat hobea. Baina epaileak zazpi ginen, ez bat; ni bakarrik izan banintz, bigarren jarriko nuen... Epaia, geroxeago adieraziko dudanez, bat-batcan ematen da eta arriskua beti dago huts egiteko.

Bertsolariak entzuleen eta epaileen aurrean

Bertsolariak eta entzuleak behar-beharrezko bi osagai dira. Noizbehinka, hala ere, epaileen aurrean kantatu behar izaten dute. Epaileen aurrera agertu beharra *serioa* da... Ez da gozoa. Lasaiago aritzen dira plazarik plaza, bertso-afari eta antzeko jardunetan. Giro gozoagoa, etxeagoa izaten da horrelakotan. Dena dela, pixka bat estuturik eta uneak, inguruko giroak hala eskaturik bertso bikainak entzun izan dira txapelketetan. Hasieran aipatu dudanez, jendearen gogoan gelditu diren bertso asko eta asko txapelketetan kantatuak izan dira. Xalbador, Lazkao-Txiki, Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Andoni Egaña, Iñaki Murua, Jon Enbeita eta abarren bertso batzuek bertsozale askoren oroimenean egin dute lekutxo. Ikasle batzuk azterketetan kikildu beharrean hazi egiten direnez, bertsolari batzuei ere horrelako zerbait gertatzen zaie. Plazagizonak (orain

“plazandreak” ere esan beharko da, hiztegia oraindik tokirik ez badu ere) deritzegu horiei. Ausardiaz, harrotasun pixka batez eta paparra aterata kantatzeko gai direnak.

Hala ere, azken txapelketetako joera bertsoan txukun egitea, pilotako irudia hartuz epailekide batek esango lukeenez, pilota jasotzea, faltarik ez egitea dela dirudi. Hau da, bertso distiratsurik, zirrara sortzekorik nekez entzuten da... Epaile on errua omen da. Gu 6,5tik 7,5ra bitartean aritzen garelako, eskuarki, puntuak ematerakoan. Hau halaxe da, eta konponbide zaila du, gainera... zirkulu zoroa delako. Epaileak ere bat-batean ari dira, eta itsumustuan ertzerik ertz aritzea ez dute gogoko. Beraz, arrazoizkoa da epaileak bertso on-ona izan dela ziur ez badago, 8,5-9korik ez jartzea; era berean 4,5-5korik ez jartzea akats larrikerik edo ageri-agerikorik antzeman ez badu. Bai, gauza politak idatzi ditu Xabier Euzkitzek: “Gauza bera opa diet epaileei ere [lan itxurosoa egiteal]. Zerbait eskatzen hasita, berriz, ausardia eskatuko nieke, txar-txarrari 0 eta on-onari 10 puntu emateko ausardia. Ez diezagutela, otoi, bertsoan egin daitezkeen akats barkaezin bakar-rak mututurik gelditzea eta poto egitea direla pentsarazi. Eta Lazkanok esango liekeen moduan, daudela lasai, ongien eginda ere gaizki egingo dute eta. Zorte on guztioil”. Hau jende askoren ahotan dabilen iritzia da. Entzule soilaren aulkitik, purua ezpainetan dela nahiz puru gabe lasai dagoenak erraz botatzen ditu horrelakoak; erraz eskatzen du ausardia; 0 eta 10 beldur gabe jartzeko, baina epaileen lekuan egingo al luke berak beste horrenbeste...? Dena dela, horrek badu arrazoizko antza eta hurrengo atal honen pare-parean jartzen gaitu.

Epaileak epaituak...

Epaimahaikook idazkariari emandako papertxoak eta han ezarritako zenbakiak ez dira ezkutuan gelditzen. Ordenadoreetan sartu eta hamaikatxo ondorio atera ohi dira haietatik. Letre-

tako jendea txunditurik gelditu ohi gara zenbakien sorginkerien aurrean. Hainbeste paper betetzen dizkigute gure zorioneko zenbakiez egindako hainbat konbinazioekin: epaile bakoitzak bertsolari bakoitzari eta bertso bakoitzeko emandako puntuak; epaile guztien batez bestekoa; batez bestekotik epaile bakoitza zenbat puntu aldentzen den gorantz edo behe-rantz; epaile bakoitzaren puntuazio-baremoa bertsolariz bertsolari; epaileen arteko aldeak... Zoratzeko adina zenbaki; batzuetan grafiko eta guzti. Benetan soka laburrean loturik ikusi izan dut neure burua. Txapelketa honetan nahiko gorderik egon izan gara epaimahaikook. Gure izenik ez zen aipatu txapelketa hasieran eta finalean izan ezik. Hala ere, jendea epaia-ekin bat ez zetorrenean, laster atera ohi gintuzten gordeleku-tik. Egia esan, benetako protagonista bertsolariek izan behar dute. Epaimahaikooi, herriz, ohorerik ez baina akatsak erraz egozten dizkigute. Epaileen lana maiz izaten da arbuatua. Auziaren erdian, errudunen aulkian eserita, haserrezko begikun-ak datozkigu handik eta hemendik. Hain lan zaila, hain esker txarrekoa izanik, aurrerantzean izango ote da horretarako bere burua eskainiko duenik? Bertsolaritzari laguntzearren eta eus-kaltzaletasun hutsez ez bada...

Eztabaida edo auzi zaharra da bertsoaren kalitatea epaitu daitekeen ala ez. Gaur ere bada ezin dela epaitu, zenbaki edo nota soiletara ezin ekar daitekeela uste duenik. Dena dela, guk dakigunetik, betidanik neurtu izan da bertsoa. Dema edo nor-gehiagoka bitarte denean, epaia eman beharra dago; irabazlea, gure kasuan txapelduna, nor den erabaki beharra dago. Garai zaharretan ere nola edo hala ematen zuten epaia; harritzen nauena epaiak hi bertsolariak berdin-berdin utziz, jendeak txalo artean eta pozarren erabakia hartu izana da. Historian zehar ezagutzen dugun lekukotasunik zaharrena da. Iztuetak eta Go-rosabelek biek ematen digute 1801ean izan zen desafio baten berri. Esku hartu zuten bertsolariak Joan Ignazio Zabala, Amezketakoa eta Jose Joakin Erroizena "Txabalategi", Hernani-koa dira. Apustua bosna ontzako urre. Jokalekua, Billabonako



Epaileak

plaza nagusia, bien herrietatik gutxi gorabehera bide erdira zegoena. Jendetza izugarria bildu omen zen. 4.000 laguneko kopurua aipatzen da... Bakoitzak juez bana aukeratu zuen: "Txabalategik" Altamira, Aizarnazabalgo sakristaua; Zabalak Joan Ignazio Iztueta, baina hau min harturik zegoelako, "Fernando Amezketarrak" bete zuen haren lekua; hirugarren jueza, berriz, bataren ez bestearen aldekoa ez zena, Jose Mendizabal izango zen, Tolosako artziprestea. Bi bertsolariek bi ordu luzetan jardun omen zuten batak bestea nola menderatuko. Txaloen artean bi ordu igaro ondoren garrasika eta oihuka hartu zuten entzuleek erabakia: biak berdin-berdin egon zirela. Aizarnazabalgo sakristauak epaia bertsotan ematean, honela burutzen du: "...atsegin aundietan / geldi da jendea; / bata adinbat egin / bear degu bestea".

Fernando Amezketarrak honela dio amaieran: "... Utzi bear ditugu / biak berdin-berdin, / Gipuzkoa guziak / ar dezan atsegin".

Azkenez, hona Tolosako bikario jaunaren azken puntuak: "...Egia esateko / ipiñiak gaude: / bata bezin bestea / kantari onak daude".

Juez hauek ere ez ziren asko arriskatu, dirudienez. Gaur egun, ordea, berdinketa hautsi beharra dago eta txapel bakarra txapeldunaren buruan jarri arte ezin da etsi. Nola epaitu? Bertsoak alde bat guztiz neurgarria du: neurria, puntuak, errimak. Hau bertsoaren azala dei genezakeena da, teknikari dagokionna. Hortik aurrera, bertsoaren osotasuna, batasuna dago; azken puntuaren indarra; hari-harira datozen puntuak; betegarri onak, hots, gaia bildu eta azken puntu indartsuaren bila doazenak; betegarri hutsak eta harira ez datozenak...

Gainera, oro har, epaileak bertsoaren estetika, bertsoaren artea barneraturik izan behar du. Izaera estetiko ideal hori izan liteke epaileak duen barneko irizpidea. Izaera estetiko ideal horretara hurbildu nahiz hortik aldendu ahala, epaiak hobe nahiz txarragoa izan behar luke.

Azaleko baldintzak ere kontuan hartzekoak dira: epaimahai-koen kokapena, megafonia egokia, publikoa mahaitik hurbilegi ez izatea...

Txapelketaren berotasunak eta ingurumariak ez luke eragirik izan behar epaileengan. Azken batez, behin eta berriro esan dudanez, epaia bat-batean emana da eta huts egiteko arriskua beti dago hortxe. Batek huts egitea erraza da, baina guztiek aldi berean huts egitea zaila. Dena dela nota hori epaileen iritzia da. Ez da gauza matematikoa. Bide hoberik asmatzen ez den bitartean...

Jokoak arteari gaina hartzen dionean

Herrialdeetako txapelketak alde horretatik garbiagoak direla esango nuke. Lehia sana izan ohi da oro har. "Hitzaren Kirol Nazionala" deitu zuen Amurizak bertsoalaritza. Halaxe da: hitzezko artea, jolasa, herri-poesia, noizbehinka kirol, joko, dema edo apustu bihurtzen dena...

Euskal Herriko txapelketa nagusian, herriz, herrialdeen arteko elkar-lehiak, pixka bat ezkutuan bada ere, lehia sanoaren mugak gainditzen dituela dirudi. Inork ez du horrelakorik aipatzen; inork ez du aitortzen, ezta aitortu nahi ere. Baina giroan bada sunda hori. Usnatu egiten da. Belodromoko finalaren atarian derby baten aurrean gauden mamua ezin burutik kendu... Kultura, artea, ahozko literatura nagusitzea nahi genuke, lehia eta norgehiagokatik, gatz eta piper pixka bat izan dezan, behar-beharrezkotxoa bakarrik emanez. Baina, zoritxarrez, entzuletariko asko bereak, bere ingurukoak txalotzera joan ohi da. Txalo-zaparradak, hortaz, ez dira beti fidagarriak. Hau da, bertsoaren kalitatea eta txalo-hotsak ez dira beti bat etortzen. Behin horrezkero, erraz da epaimahaikoa giro horretaz kutsatzea eta pixka bat nahastea. Epaitzerakoan geure baitan dugu ez bakarrik arestian aipatu dugun ideal estetiko hori, baita giroaren zama eta geure bihoztxoaren deia ere... Horrek gizakiak garela adierazten du, eta ez aingeruak.

Dena dela, hau guztiau ezinbestean daramagun zama da; gainditu beharrekoa. Herrialdeen arteko mugak ezabatu eta Euskal Herria bere osotasunean hartu beharra dugu. Herrialde bat besteei onean ez bada txarrean nagusitu behar horrek ba al du zentzurik abertzale baten ikuspegitik...?

Une batzuetan batez ere herri-kirol edo apustu antz gehiegi hartu ohi du txapelketak. Xalbadorri antzina egindako txistuak maiz aipatzen dira, baina oraintsuago ere izan dira; ez hain nabarmen, zorionez. Beasaingoa aipatua dugu lehenxeago. Artea, sentimendua, arrazoi politak, ziria, grazia, umorea, hitzezko jolasa jarri behar dira jokoaren gainetik.

Azken iritziak: hainbat gai eztabaidan

Belaunaldi berriak sartu zaizkigu indartsu bertsolaritzan. Belaunaldi hauek, gainera, bultzaka datoz aurrekoak harrapatu beharrean, hauei goian kokatu eta bertan pausaldi luzerik egi-

ten utzi nahi ezik. Itsasoan erreskadan eta tarte txikiz gailur-tzen diren olatuak bezala. Ikastoletan lehen urratsak eman eta eskolarteko txapelketetan trebatutakoak ia guztiak. Gaztetxo-tan Mikel Mendizabal maisu izan duten batzuek aurrez aurre izan dute Donostiako finalean. Hau benetan pozgarria da, bertsolaritza bizi-bizi eta sendo dagoela esan nahi baitu. Hauen ezaugarrietariko bat saio gorabeheratsuak egitea da: batzuetan goi-goian eta beste batzuetan laprastadak eginez nahiko behean. Baina eskarmentu pixka bat lor dezatenean, bertsolaritzan gauza handietarako gai direla erakutsi digute dagoeneko. Koldo Tapiaren iritzia ere hortik doa: "Txapelketa honek adierazten du errelebo edo belaunaldi berri baten fin-katzea". Geroxeago, finaleko zortzikotearen adinari dagokio-nez, honela zehazten du: "Hiru daude 40 urte ingurukoak eta gainontzekoak 25 urteen mugan. Alde horretatik, txapelketak funtzio bat betetzen du, eta hori da errelebo berriak ekintza sonatu eta prestijiatu batean beren burua konfirmatzeko aukera eskaintzea. Bertsolariak plazaz plaza ibilian egiten diren arren, txapelketak ikur berezi bat ematen dio".

Bertsolari klasikorik gutxi agertu dira txapelketan. Loidisaletxe eta Mañukorta sar genitzake horien artean. Olaso ere bai, agian. Joan Mari Areitio ez da sartu oraingoan. Eta asko gehiago ez. Punta-puntan dabiltzan batzuk ez dira azaldu: Xabier Euzkitze, Angel Mari Peñagarikano, Jon Enbeita, Millan Telleria...

Gauza asko geldituko dira kolokan. Eztabaidaren bahe es-tuan jarriak izan dira honezkero. Txapelketaren egitura edo antolaketa bera, finaleko zortzikotea hasieratik azkeneraino, kartzelako gai bikoitza, bertsoaren azken aurreko puntua, epaimahaiari dagozkion hainbat xehetasun eta epaileek presta-turiko txostenaren puntu bat edo beste.

Antolaketari dagokionez, goi-mailako bertsolariekin egin behar litzatekeela txapelketa uste dute batzuek. Zehazkiago esa-teko, Xabier Amurizaren ahotsak nahiko oihartzun izan du ko-

munikabideetan iritzi honen alde. Hona hemen beraren arrazoibideak:

“Nire ustez alde horretatik [lehen faseaz edo kanporaketaz ari da] txapelketa gaizki planteatuta dago. Nik uste dut bestela egin behar litzatekeela. Bertsolari Txapelketa Nagusiak ez lituzke hartu behar egun hartzen dituen zenbait funtzio: esate baterako, promozio funtzioa. Horretarako badaude beste

txapelketak, sariketak eta abar. Nik uste dut bertsolari txapelketa nagusiak bertsolari onenekin egin behar liratekeela, eta bertsolari horiei ahal den guztia atera behar zaiela. Bertsolari Txapelketa Nagusiak, nolabait esateko, elitearen erakusle izan behar du. Horrela egingo balira, askozaz lan gehiago eta ikusgarriagoak jartzeko aukera egongo litzateke. Beste alde batek, laburragoak eta intentsoagoak izango lirateke. Hiru-lau astetan hasi eta bukatuko genituzke txapelketak, ez ginatke hiru hilabetetan ariko horri bueltaka”.



Finaleko bertso-maratoia, zortzikoteak hasi eta bukatzen duena, ez da askoren gogokoa. Bizkaian, adibidez, aspaldi aldatu zen era hori eta bai bertsolariek eta bai bertsozaleek ongi hartzen dute Arriaga Antzokian azken bizpahiru txapelketatan egiten dena, hots, zortzi hasi, erdialdean lauk aurrera egin eta azkenez bi hoberenak gailurrean txapela jokatzea. Jon Lopategi, besteak beste, era horren aldekoa da. Honela dio abenduaren 14ko *Euskaldunon Egunkarian*:

“Finalari buruz beste zerbaite ere esan nahi nuke. Garai batean ere halaxe egiten zen, eta orain ere finalean egitura piramidala hartzea gustatuko litzaidake. Ez du zentzurik, nire ustez, bertsolari guztiakin hasieratik amaierara aritzea. Garai bateko txapelketetan goizean huts egiten zuenak bazekien arratsaldean ez zuela zereginik. Arratsaldeko saioan taula gainera igotzen zen, baina ez zeukan kantatu beharrik. Ez dut uste arratsaldean zereginik ez dutenek kalbario horretatik igaro behanik dutenik”.

Unai Iturriagak ere iritzi bera agertu du behin eta berriro: “Nik uste dut planteamendu piramidala ona dela guretzat, eta entzuleentzat zer esanik ez”. Geroxeago ere, iritzi bera indartuz, honela dio: “Niri gheiegizkoa iruditzen zait saio batean zortzi pertsona bertsoan aritzea batetik bestera 100 puntuko aldea dagoenean. Erakusteko hiru orduko saioa dago goizean. Hor badago denbora nahikoa lan txukun bat egiteko edo etxera pozik joateko”.

Txapelketa antolatzeko bilera batean bertsolariek izan zuten aukera hitz egiteko. Hitz egin zuten gehienak piramide eraren alde ziren, kontizu; beste banaka batzuk orain arteko eraren alde eta beste batzuk isilik gelditu ziren. Aldatzeko erabateko adostasuna behar zen, antza... Bestalde, orain arteko era nahiago dutenek arrazoi hauek edo antzekoak adierazi dituzte: zortzikotean hobeki babesturik ikusten dutela euren burua edota goizean irrist egin dutenek beste aukera bat dutela arratsaldean. Aukera horri zukua ateratzen dionetariko bat Sebastian Lizaso da eta aurren Jesus Mari Irazu ere bai.

Kartzelako gai bikoitzarena ondo beharrez asmatu zuten, zortzi aldiz jarraian gai beraren inguruan kantatuz entzuleak asper ez zitezen. Dena dela, horrek porrot egin duela dirudi; areago oraindik: kartzelako ariketaren izaerak berak eskatzen duenaren aurka ere badoala esango nuke, elkarri entzun gabe gai beraren inguruan bertsolariak neurtzea baita horren xedea. Diodanaren harian hainbat iruzkin entzun ditut, baina alda ditzadan beste behin hona Unai Iturriagaren hitzak, abenduaren 14ko *Euskaldunon Egunkariatik* hartuta: "Absurdua da gai bi egotea kartzelan. (...) Ariketa horren izatea bertsolari guztiak neurri berdin baten arabera epaitzea da". Eta kazetariak honela zehazten du: "Gainontzeko finalistek ere euren adostasuna agertu zuten puntu horretan".

Azken aurreko puntua emateaz ere zenbait marmarraldi entzun ditut. Bertsolariak normalean ez omen du horrela jokatzeko, azken puntua gogoan duela baizik; eta ohiko bertso-gintzako jokamoldeetan sartzen ez dena ez litzatekeela txapelketan ere jarri behar diote... Baina horren aurka ia inor ez da jaiki, edota horrekin bat etorri ez arren, ez diote garrantzi handirik eman. *Euskaldunon Egunkariako* eztabaidan ere ez da ageri. Bertso-gintzako ohiko jokaera izan ez arren, kasu batzuetan, erraztu ere egiten dio bidea bertsolariari, azken aurreko puntu horrek, nola moldaturik dagoen, azken puntua ia bideratu ere egiten baitu.

Gai batzuek ere kritika zorrotza izan dute. Aipatzekoak dira, besteak beste, Andoni Egañaren "porruak", Igor Elortzaren "anorexiarena", Mikel Mendizabalek ere han eta hemen bilduta zorro bete dirurekin zeruan San Pedroren aurrean agertzean ez zuen nondik irten handirik. Unai Iturriaga ere kexu zen Beran hain saio ederra egiten ari zela "hartzarena" egin beharra izan zuelako.

Epailen lana eztabaidatua izan da. Hauen xedea merituak gehiago saritzea zen akatsak zigortzea baino; hala ere Jon Maiaren ustez alderantziz egin omen da. Unai Iturriagak epai-

mahai kontsebadorea ikusi du: "Nik uste dut oso epaimahai kontsebadorea dugula, eta ez dut asmo txarrez esaten hori. Normala da. Azken batean, Beasainen gertatu zen bezala, 2.000 pertsona daude han gainera salto egiteko prest euren bertsolaria atzera geratzen bada. Hala ere, ikusi nahiko nuke zenbat bederatz, edo zortzi eta erdi eman dituzten txapelketa honetan. Arriskatu egin behar da alde horretatik". Epaimahai kontsebadorea, baina aldi berean zuzena izan dela baieztatzen du. Askok hori aipatzen duenean, hala izango da. Bertsoak epaitzeko irizpideetan zuzenketa edo ukitu txiki batzuk egin beharra ere iradokitzen da. Esaterako, potoagatik zenbat jaitziko den ez zehaztea txostenean, gainerako akatsak nola zigortuko diren ere ez baita zehazten. Dena dela, gehiegizkoa da norbaitzuek azpimarratu dutena eta ez da egia potoa bakarrik zigortu dugunik. Meritu guztiak saritzen eta akats guztiak zigortzen saiatu gara, baina ez meritu eta akats guztiak neurri berean. Gure belaunaldian potoak zama astuna du, eta garai zaharretan orain baino larriagoa omen zen, 0 ipintzeraino bartzuetan... Nola esan dezakete bertso gaietan beren burua jakintsu egiten dutenek potoak ez hartzeko kontuan merituak baizik, eta bertso onenak soilik epaitzeko. Epaitzeak berez dakar alde ona eta txarra ongi neurtu, haztatu eta gauzak ongi begiratu ondoren epaia ematea. Oraingoan gertatu dena hau da: goi-mailako bi bertsolari, gainera zale mordo bat inguruan aupatzen dituztenak bina poto eginda eta tartean bertso onak botata erori direla... Honetaz nahiko hitz egin da.

Bertso aipagarri batzuk

Finaleko batzuk jarriko ditut soilik, finalurrekoetako batzuk bikainak izan arren ez baititut eskura.

(Ariketa: hitza eman eta hura definitzea)

Sebastian Lizaso: Sukaldea

Amona sartu obi da
goizean aurrena

atzetikan katua
atean barrena
gero ondoren denok
gauza nabarmena
denok baitegu hura
geure kokapena
etxeak izaten dun
txoko gozoena.

Andoni Egaña: *Burua*

Batzutan da argia
bestetan iluna
batzutan pilakoa
bestetan astuna
kanpotik ilea du
barruan garuna
lepogainean denok
daukagun laguna
gehiegik gutxiegi
erabiltzen duna.

Unai Iturriaga: *Basoa*

Irati parajea
gainezka dagona
pagadi berde ilun
lurrealde sakona
nostalgia askoren
on ta zoriona
baina hitz horrek badu
berarekin broma
zerbeza gordetzeko
ze inbentu ona.

Maialen Lujanbio: *Ordenadorea*

Aparailua modan
azken urteetan,

ziur asko sailduko
 dira Gabonetan;
 teklatxoei begira
 ni nago penetan,
 dena txukun jartzen du
 atal banaketan
 ta ni galtzen naiz bere
 laberintoetan.

(Ariketa: bakarka, bederatzai puntukoan)

Mikel Mendizabal: Fedea

Batzuntzat izan leike
 arraro xamarra
 beste askorentzako
 badauka garra
 bultzaarazten baitu
 barruko hausnarra
 bizitzari emanez
 gatza ta aparra
 itsumenen marra
 haustea ez da txarra
 nahi dut azpimarra
 zeinen den edarra
 barruko sinesmenak
 duen indarra.

(Ariketa: bakarka, nahi den neurri eta doinuan)

Ion Maia: Alaba txikiaren amodiozko gutuna

Eskutitzez jo nahi dezu
 maitatuaren aldaba,
 irakurri hutsarekin
 etortzen zait hotzikara.
 Boligrafoz nabari da
 zure eskuen dardara
 beti bertatik bertara.

Ejenplu bat zera eta
segi horrela ta hara:
aitatxo harro dago
alabaren begitara
ta orain egin dezuna
oso gauza handia da,
lortzen ez badezu ere
bejondeizula, alaba!

Aritz Lopategi: Mendizalea. Helburua, hamalau 8.000ko egitea,
baina orain hamabosgarrena agertu omen da.

Zortzi milako hamalau mendi
nituen *nik* ezagunak
puntarik punta eginak ditut
amaigabeko jardunak
elur artean pasata gero
egun hotz eta ilunak
entzun ditut oihartzunak
esan didate lagunak
hamalau tontor igo nahiean
pasatu ditut egunak
hamabost ere igo ditzake
hamalau igo ditunak.

Mendi puntara iritsi eta
han hasten nintzan orruka
gainean zero urdina ikusiz
bihotz barrua poztuta
beste mendi bat dala orain ta
hain aurkitzen naiz lotuta
jarraituko dut burruka
orain ezin geldituta
beste mendi bat ere badago
eta irrikitan nauka
banoa hara neure bota ta
neure kordelak hartuta.

Mundu osoko laino urdinak
 izan ditut parez pare
 gora helduta sentitu izan naiz
 mundu osoaren jabe
 mendia baita nire bizitzan
 dudan oinarri ta habe
 beste bat dago halare
 oraindik nik igo gabe
 beraz horretan jarraituko dut
 mendirantza trebe-trebe
 hori igota sentituko naiz
 mendi tontorren errege.

(Ariketa: Kartzelakoa)

Jesus Mari Irazu: Zahartzaroan gerran egindako zauriei begira

Goitik agindua eman
 fusila eskutan hartu
 gerraren gogortasuna
 txikitatikan probatu
 frenteko lehen lerroa
 ederki nuen gozatu
 etsaia ala laguna
 aurrekoa tirokatu
 mendian gora ta behera
 han ezin gendun nekatu
 orain begiak malkotan
 ta ezin dira lehortu
 nere zauriei begira
 begiak zaizkit lausotu
 zauriak ez dira itxi
 ta gerra ez da bukatu.

Nahiz barrutikan beldurrez
 itxuraz behar zan trebe
 odola ez zan neretzat
 sorpresa ta nobedade
 gerran maltzurkeritara

ezin da izan erabe
nere bizia arriskuan
ezin nun utzi debalde
nahiz beti zalantzan izan
han gelditu edo alde
beti onartzen ditugu
kanpokoen hainbat lege
beti behar ote degu
etsaien zaurien mende
ordun zatitu gintuzten
ta oraindik hala gaude.

Nere desioen kontra
aberkideari tira
nork murgildu ninduen ni
hainbesteko sarraskira?
Orain hurreratu naiz
jubilazio ez tira
oraindik gogoan daukat
orduko gauen distira
halare barru-barruan
biharko egunan desira
begiak itxita goxo
etorkizunai begira
nere zauriak badakit
lurpean itxiko dira
ojala herriarenak
han itxiko ez balira.

Unai Iturriaga: (gai bera)

Hainbeste tiro, hainbeste bala
nik ez dut sekula bota
ezautu ere egiten enun
arerio txar baten kontra;
zenbat alditan lubakietan
nuen odola borborka,

enun ulertzen zertarako zan
 han egiten zan borroka
 ta ondorioak badauzkat orain
 eta gehienera jota
 gutxi batzuen garaipena zan
 ta gehiengoan porrota.

Hamalau urte ta gerra baten
 erdian han zegon Unai
 egunen baten arrazoiren bat
 emango zitzaionan zai
 sentitzen nintzen nere pareko
 edonor botatzeko gai
 mozkorraldiak lubakietan
 eta gutunekin alai
 baina denbora pasatu eta
 begiratzuz joan danai
 gerra guztiak dira berdinak
 bandera denak ere bai.

Andoni Egaña: Lapurra, Sevillako "Expo" bezalako inguru jendetsuetan lapurretan aritu zena.

Dirurik ez dut patrikan sobran
 aitortu nahi dut aurrena
 hankagorritan maiz ibili naiz
 kalegorritan barrena
 ta "Expo" nuen nere ustetan
 lapurretako eszena
 bertan kartera lapurtzen nuen
 batena eta bestena,
 nik atzaparra kakoa baitut
 ta begirada eztena
 nik egin dedan hobena
 barkagarria da dena
 batzuk ederki asmatu dute
 lapurretako sistema

ta nik zailena hautatu nuen
horrek ematen dit pena.

Zenbaitentzako lapurreta da
halako disparatea
neretzat, berriz, bizi-iturri
lapurreta egitea;
ni lapurra naiz baina halere
oso lapur arlotea;
gehienez ere hustutzen ditut
patrika ta eskotea;
besteren batzuk oso goitikan
daukate borondatea,
zabaldu dute atea
mesede edo kaltea;
politikoek eukiko dute
patrika bete-betea;
erabaki dut "Expo" utzita
Guggenheima joatea.

(Ariketa: zortziko txikian: Aritz Lopategi komun mugikor batean dago bere beharrak egiten eta udaltzainak hartuta badarama; garabiaren gidari Sebastian Lizaso da.)

Aritz Lopategi

Jan ta edaten nembilen
lehenago jo ta su
eta jakina gero
hainbat enbarazu;
grua hona lotuta
zertan zabilta zu?
ez dut bukatu eta
nora naramazu?

Sebastian Lizaso

Eginkizuna degu
bakoitzak berea
zu estu eta larri
ta nik umorea
behingoa nik egin dut
era dotorea
kalean zabaltzeko
ambientadorea.

Baneukan komunean
 nik zeregin frango
 baina lasaitu dira
 gorputz eta zango
 orain galderatxo bat
 eingo dizut ondo:
 hor kotxean paperik
 ez dezu izango?

Hementxe aritu naiz
 gogor indarrean
 baina zu ez zatozkit
 hain modu txarrean
 orain nago etxera
 joan beharrean
 eta utzi nazazu
 portale aurrean.

Hementxe goaz biok
 gora eta behera
 nun bukatuko ote da
 gure ibilera?
 Zuen zerbitzu honek
 egin du hobera,
 komuna ta taxia
 bi gauzak batera.

Paperan faltan zaude
 bildurti ta izu
 eta nik ezin bete
 hainbat konpromizu
 ateari itxita
 zuk heldu zaiozu
 edo bestela galtzak
 galduko zaizkizu.

Zuri entzuten daude
 hainbeste testigu
 egoera gogortzen
 orain ari zaigu
 etxera eramatea
 ez da nere kargu
 guk simaurrak soroan
 zabaltzen ditugu.

Zure ametsa ez da
 ongi aterako
 bidaia izango da
 zeure kalterako
 grua puntan bazaude
 puska baterako,
 hargatik polita da
 karnabaletako.

Luis Baraiazarra Txertudi